



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO DOKUMENTUEN KUDEAKETA INTEGRALARI ETA ARTXIBOEI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUAREN GAINEKO TXOSTENA

LEA/AVC espedientea. Zenbakia: 277-NORM-2018

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero andrea, burua

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Enara Venturini Alvarez andrea, kidea

Idazkaria: María Lourdes Muñoa Corral andrea

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), 2018ko irailaren 19an egindako bileran, goian adierazitako kideak bertan direla, honako txostena igorri du 277-NORM-2018 zenbakiko espedientean.

I. AURREKARIAK

1. 2018ko uztailaren 31n, TRAMITAGUNEaren bidez, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Lehiaren Euskal Agintaritza (LEA) honi eskatu zion Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentuen Kudeaketa Integralari eta Artxiboei buruzko Legearen Aurreproiektuaren gaineko txostena igor zezala (espediente-zenbakia: DNCG_LEY_1633/18_10).

2. Legearen Aurreproiektuaren xedea da, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko artxibo eta agiri publiko eta pribatuen kudeaketa, tratamendua eta antolamendua arautzea, honako hauek bermatzeko: erakundeen funtzionamendu hobea, kudeaketa publikoaren gardentasuna, informazioaren berrerabilpena, herritarren eta administrazioen eskubideen zaintza, eta EAEko esperientzia kolektiboa jasotzen duen agiri-ondarearen eskualdaketa.

Aurreproiektuaren zioen azalpenean adierazitakoaren arabera, arauak erantzuna eman nahi die, gizarte digitalaren testuinguruan, dokumentuen



kudeaketa integralak planteatzen dituen erronkei, kontuan hartuta artxiboen antolaketa egokitua eta zorrotza behar dela.

II. AZTERKETA

3. Lehiaren Euskal Agintaritzaren Legeak 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, LEAren helburua da lehia askeko baldintzak eta merkatuaren gardentasuna sustatu, bermatu eta hobetzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan gauzatzen diren jarduera ekonomikoekin lotuta¹.

4. Igorritako Aurreproiektuaren klausulak aztertu ondoren, honako hau ondorioztatu daiteke: ez da ikusi Aurreproiektuak lehiari sarrera-mugarik edo oztoporik jartzen dionik, eta, ondorioz, LEAk ez du inolako eragozpenik, gomendiorik edo iruzkinik egin.

¹ 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa. 2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zk.